



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko agorrilaren 3ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko agorrilaren 3an, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, FALXA Odile, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, DACHAGUER Peio, GOICOCHEA Iñaki HEGUY Antton.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : FALXA Odile.

Deialdiaren eguna : 2023ko uztailaren 28a

Afitxatze eguna : 2023ko uztailaren 28a

6. ERABAKIA: ETXEBIZITZA HUTSEI BIGARREN ETXEBIZITZEN BIZITEGI ZERGA EZARTZEA (7.2 nomenklatura)

Ortzaizeko auzapezak Frantziako zerga kodeko 1407 bis artikularen xedapenak izan ditu hizpide. Artikulu horren arabera, etxebizitza nagusi gisa erabiliak ez diren bigarren etxebizitzen eta lokal ekipatuen bizitegi zerga aplikatu dakieke etxebizitza hutsei.

Lokalen zergapetzeko baldintzak eta huts egotearen irizpideak oroitarazi ondotik, zehaztu du zerga okerra balitz hutsik izatea gaizki baloratu delako, ondotik egin beharko lirakeen zerga beherapenak herriaren gain izango lirakeela.

IKUSIRIK, Frantziako zerga kode orokorreko 1407 bis artikulua, Herri Biltzarrak, eztabaidatu eta gero,

- **ERABAKI DU**, etxebizitza hutsei etxebizitza nagusi gisa erabiliak ez diren bigarren etxebizitzen eta lokal ekipatuen bizitegi zerga aplikatzea.
- **AGINDU DIO**, Auzapezari honako agindua betetzea eta prefekturako zerbitzuei erabaki honen berri ematea.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balitzko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko agorrilaren 3an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/08/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/08/11n.